

Gizartea ez ezik, euskaltegiak ere eraldatze-uholdeak harrapaturik

Euskaltegiak ikasleen beharretara egokitzen

Abian da 2003/2004 ikasturte berria euskaltegietan ere. Ikasturte berriaren aurkezpenean, HABEko zuzendari nagusi Jokin Azkuek gizartea eta euskaltegiak harrapaturik dauzkan eraldatze-uholdeak aipatu zituen. Eraldatzeen susmoa eta usteak gainera, indartu egin ditu IKEL enpresaren ikerketa berriak. Horren ondorioz, euskaltegiak finantzatzeko irizpideak berriro dira eta HABEren funtzionamenduaren kudeaketa-estrategiak ere aldatu dira. Honenbestez, jarduerari ez ezik, emaitzari ere arreta eman nahi zaio, eta horretarako indarrean jarri nahi da mailaketen aitorza ikasturte honetan bertan, eta ekainerako Helduen Euskalduntzerako Oinarriko Kurrikuluak (HEOK) ezarritako mailak egiaztatzeke lehenengo frogak egingo dira.

Moduluak malgutu egingo dira, ikasleen joeretara egokitzeko, ikastaro presentzialak ez ezik mistoak ere onartuz. Ikasturte honetarako beste zereginetako bat, teknologia berrien garapena eta erabilera bultzatzea izango da eta euskaltegiek on-line ikastaroak sortu eta eman ahal izateko dirulaguntza-deialdia jarriko du indarrean HABEK.

HABEko zuzendari nagusi Jokin Azkuek IKELren ikerketa oinarri hartu eta ikasturte berriaren atarian gogorazi zue-nez, euskaltegiei dagokie eskura dituzten giza baliabideak kudeatzea ahalik eta etekin hobea lortzearen, egungo egoerari aurre egiteko. HABEK bere laguntza eskainiko du kudeaketa lan hori burutu ahal izateko ikastaroak antolatzen.

Matrikulazio kopurua

2002/2003 ikasturtean, 8.972 ikasle izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoko udal euskaltegietan, eta 21.712 bestee-tan. Guztira, 30.684 ikaslek jardun zuten euskara ikasten joan den ikasturtean.

Urte urte, berriz, gehiago dira euskara ikastera edo hobetzerara jotzen duten emakumezkoak. Bestalde, gero eta nagusiago dira udal euskaltegietan matrikulatzen diren ikasleak; adibidez, duela zortzi urte portzentaje altuena zuen 16 eta 20 urte bitarteko ikasleen kopuruak (1994/1995 ikasturtean %31,69) eta orain, aldiz, txikiena da (2002/2003an %9,96). Igoera nabarmenena 36-45 urte bitartekoen eta gorakoenen artean gertatu da, hau da, ikasle langile dira edo lan adinean daudenak. Bestalde, urtetik urtera euskaltegietan gehituz doa etorkin diren ikasleen kopurua.

2002/2003 IHASTURTEKO DATUAH

Matrikulazio kopurua 2002/2003 ikasturtean

BIZHAIA			
Udal euskaltegiak	5.316		%31,97
Besteak	11.310		%68,03
Guztira	16.626		
GIPUZKOA			
Udal euskaltegiak	3.445		%39,87
Besteak	5.193		%60,13
Guztira	8.638		
ARABA			
Udal euskaltegiak	217		%3,91
Besteak	5.328		%96,09
Guztira	5.545		
GUZTIRA			
Udal euskaltegiak	8.972		%29,24
Besteak	21.712		%70,76
Guztira	30.684		



Santurtziko euskaltegia.



Euskaltegiak ikasleen beharretara egokitzen



PERTSONAJEA:
Etienne Salaberrri

LABURRAK

- 17. Flarep solasa

• "Tartea", Berria egunkariaren gehigarria

AGENDA

- Expolingua Berlin 2003



• Tokiko hedabideak etorkizunera begira

• Aukera-berdintasuna garatzeko kultura



Terminologia Batzordearen lana

laburrak



17. FLAREP solasaldia

Urriaren 25etik 27ra, 17. Flarep solasa egin da Lorient

herrian. Aurten, galdera bati erantzuten saiatu dira bertara direnak; alegia: "Zer da hizkuntza politika globala?" Flarep (Fédération pour les Langues Régionales dans l'Enseignement Public), 1987an sortu zen Baionan eta bretoierak, okzitaniar, euskarak, katalanak, altsazierak, korsikerak, probentzalerak eta flamenderak Frantziako hezkuntza sisteman leku izan dezaten lan egiten du.

"Tartea", Berria egunkariaren gehigarria

berria

"Tartea" gehigarri berria jarri zuen abian *Berria* egunkariak urriaren 11n. Hamabi orrialdeko

gehigarria da eta kronikak, elkarrizketak, erreportajeak eta sekzio tematikoak –osasuna, moda, etxe apainketa, osagarriak, aisialdia, gastronomia, mendia... – ditu. Egunkari formatuko aldizkaria da "Tartea" eta koloreetan dator lehenengo, erdiko eta azken orrialdeetan.

agenda



Expolingua Berlin 2003

16. urtez, Hizkuntzen eta Kulturen Nazioarteko Azoka egingo da Berlinen azaroaren 21etik 23ra, "Hizkuntza aniztasun handiagoko Europan" lemapean. Alemanian eta alemana hitz egiten duten herrialdeetako azokarik handiena hasi aurreko egunean, hilaren 20an, euskararen egoerari buruzko azken datuen berri emango du Kultura sailburu Miren Azkaratek Berlingo Unibertsitate Librean. Nazioarteko Azoka kari, bestalde, euskara-tailerra ere egingo da bertan.

pertsonajea

Etienne Salaberri, poeta pentsalaria



"Mendeak ba zituen hiru urte; urteak bi ilabete; ilabeteak zortzi egun, egunak bostz oren sortu zelarik Heleta Garran muttiko bat, ahul xuhail eta nigartsu. Haurtto hori ni naiz, omen". 1976an *Gure Herria* bihilerokoan argitaratu zuen "Ene Sinestea. Garrako seme" artikulua-ren hasiera da. Halaxe ematen du bera munduratu zeneko berria.

Heletako eskolan ikasi zuen lehen. Bellokeko ikastegian egin zituen

apaiz ikasketak eta Okzitaniako Tolosako Institutu Katolikoan, berriz, filosofia ikasketak. Handik Uztaritzeko Seminario Ttipira itzuli zen, filosofia irakasle, 1931n. Ordurako, ia bi urtez egona zen soldaduska egin beharrez, Alemaniako Rhin ibaiaren zaintzaile. Gero, Bigarren Mundu Gerra zelarik, bost urte ere emango zituen Alemanian bertan preso. Ez du sekula ahantziko gerraren denborako esperientzia.

Gerra ondotik Uztaritzen zen berriz, filosofia irakasle, 1958 arte. Apezpikuak igortzen du orduan Baionan antolatu berria den *Villa-Pia* lizeora. Apezpikuak lizeo horretako zuzendari nahi luke Salaberri baina honek nahiago izango du betiko irakaskuntzan ari izan, 1973 arte, erretiratu arte. Harrezkero, idatzi egingo zuen batik bat, 1981eko uztailaren 22an hil arte.

Irakasle eta kazetari izan zen Etienne Salaberri. 1946tik 1981 arte, bi aste zendu aitzin, astero idatziko ditu euskarazko artikulua *Herria* astekarian, *So egile* izenpetuz.

Gure Herria bihilerokoan ere idatzi zituen artikulua luzeak, goi-mailako frantses batean. Aldizkari berean irakurtzekoak dira Etienne-ren olerkiak, azkena *Maiatz* aldizkariarentzat idatzia.

Liburuetan aipagarri dira *Ene sinestea* (1978), eta *Beñat adiskidea agur* (1981) Etienne Salaberriren testamentua baita. Beñaten bidez, beste guzietan mintzo zaie, bakardadea eta sufri-mendua esperantza bortitzez batekin gaindituz.



“Tokiko hedabideak etorkizunera begira” jardunaldiak

Zamudion egingo dira azaroaren 28 eta 29an

Euskara Elkarten Federazio Topaguneak antolatuturik, “Tokiko hedabideak etorkizunera begira” izeneko jardunaldiak egingo dira azaroaren 28 eta 29an Zamudioko Teknologi Parkean.

Antolatzaileen arabera, hamabost urte dira Euskal Herrian hurbileko informazioa jorratzen duten herri-aldizkariak kaleratzen hasi zirela. 1988an, mugari erabakigarria ezarri eta produktu definituagoa atera zuen jendartera *Arrasate Press* aldizkariak. Arrasatekoaren ereduari jarraiki, beste hainbat kazeta sortu zen Euskal Herrian, euskara elkarten magalean eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko helburuarekin. Hamabost urte igaro dira ordudanik eta bizi-bizi irauten duen fenomeno horri begira jarri eta hausnarketari ekiteko unea dute tokiko hedabideek.

Aztertuko diren gaien artean dira, esaterako, ondorengoak: prentsa Euskal Herrian, hizkuntza gutxituetan kaleratutako tokiko prentsa Europan, tokiko hedabideak kudeatzeko zenbait proposamen (irratia, telebista, euskalkia, web-orriak), tokiko multimediak.

Horrekin batera, *Arrasate Press* aldizkariaren 15. urteurrena ospatuko dute jardunaldion amaiera-ekitaldian.



Aukera-berdintasuna garatzeko kultura



epaimahaietan, hala nola arte edo kultur ondareak erosteko eskumena duten organoetan, gizonezko eta emakumezkoen parte hartzea orekatzen ari da, parekidetasuna helburu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren (EEEEPP) helburuetarik bat da euskal administrazioak aukera berdintasunen alde egingo duen lanaren tresna antolatzailea izatea. EEEEEPPa departamentuetako planen bidez gauzatu da eta urteroko programak hartzen dituzte barne.

Kultura Sailak ere Plan honen edukiak lurralde-unitate guztiei, HABEri, SHEEri, EITBri, Euskadiko Orkestra Sinfonikoari eta Kultura Sailari atxikitako kide anitzeko organoei helaraztea onartua du aspaldi.

Aukera-berdintasuna garatzeko kulturaren bila hainbat ekintza zehatz ere bideratu ditu Kultura Sailak aurtien eta, ekintza askoren artean, aisialdiko eskolen material, argitalpen, programa, eduki, ekintza eta baliabideetan generoaren ikuspegia sartu du. Bestalde, sailak sustatu edo diruz laguntzen dituen arte, literatur eta bestelako sariketarako

Terminologia batzordearen lana


Zenbait alorretako terminologia biltzeko prozedura abian jarri du HPSk

Euskararen Aholku Batzordeak eginitako, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartu eta Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean sendetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez hain zuzen, datuzen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agintzen du VI.3.3.a atalean.

Bestalde, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 5eko 34/2002 Dekretuaren 16.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio euskararen corpusa estandarizatzea eta modernizatzea.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzio, kudeaketa eta hedapena finkatzeko plangintza jarri du abian, terminologiako erabiltzaile estrategikoen esku gomendatutako terminologiak jartzeko.

Hortaz, esandako hori guztia bideratzeko, Euskararen Aholku Batzordearen barruan, Terminologia Batzordea eratu da (179/2002 Dekretua, uztailaren 16koa), batzorde-atal berezi gisa. Izan ere, batzorde-atal berezi horren egiteko nagusiak honako hauek dira: terminologia-alorreko lehenetasunak finkatu, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak eman eta termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatu, landutako terminologia-lanei onspena eman, finkatutako terminologiak zabaltzeko bideak proposatu eta terminologia horien erabilerara gomendatzea.



Hori horrela, Terminologia Batzordea terminologia-lanen koordinazio-gunea ere izango da eta, hori dela eta, Batzordeak terminologia-lana egingo dutenei lankidetzak eskainiko die aplikatu beharreko metodologia zein irizpideak eskuratuz; helburua da terminologia-lan horiek Batzordeak ontzat ematea, EUSKALTERMen txerztatzea eta erabiltzaileei gomendatzea.

Dagoeneko, Terminologia Batzordeak hiru bilera egin ditu. Batzordeak, besteak beste, "2003-2005 Jarduketa-plana" eta "Terminologia batzordearen lan-metodologia" onartu ditu. "2003-2005 Jarduketa-plana"ri dagokionez, bertan jasotzen dira terminologia-arloan datozen 3 urteotan egin

beharreko lanak: lehenetasunak, irizpideak eta ponderazio-markak finkatzea; aplikatu beharreko irizpideak argitaratzea eta zabaltzea; 2003-2004-2005 urteotarako lan-proposamenak egitea; terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea eta erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren erabileraren ebaluazioa egitea.

Terminologia Batzordeak erabakitakoari men eginez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lehenetasunaz jotzako zenbait alorretako terminologia eta lexikoa biltzeko prozedura abian jarri du eta, horrela, lau glosario egingo ditu: "Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia"; "Zenbaki bidezko kontrola", "Bulegotikako hiztegia" eta "Laburtzapenen hiztegia". Lan horiek Terminologia Batzordeak ontzat eman ondoren, Euskalterm Terminologia Banku Publikoan integratuko dira eta erabiltzaile estrategikoen eskuetan jarriko dira.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
kodea:Lurraldea:.....
Tel.:
e-posta: